



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

**“VITORIA-GASTEIZ HIRI HEZITZAILEA 2023-2030”**

## **HEZKUNTZA-PLANA**

HEZKUNTZA ZERBITZUA  
HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA  
VITORIA-GASTEIZKO UDALA

*Gaur egun, inoiz baino gehiago, hiriak edo herriek,  
handi zein txiki izan, ezin konta ahala aukera hezitzaile dituzte;  
baina, udalerrian bertan, hezitzaileak ez diren indar eta inertziak  
eragin dezakete. Aldez edo moldez, hiriak heziketa integralerako  
elementu garrantzitsuak ditu: sistema konplexua da, eta,  
aldi berean, hezkuntza-eragile iraunkor, plural eta poliedrikoa,  
hezkuntza-faktoreak eta gizarte-eraldaketarako faktoreak  
sustatzeko gai dena.*

*Hiri Hezitzaileen Gutuna, 2020*

## AURKIBIDEA

	<b>Orrialdea</b>
Hitzaurrea	<b>4</b>
Inplikaturako arau- eta programa-esparrua	<b>6</b>
Esparru kontzeptuala: <i>Hiri Hezitzailea</i>	<b>9</b>
Vitoria-Gasteiz <i>Hiri Hezitzaile</i> gisa sendotzeko oinarritzko printzipioak	<b>13</b>
Plangintzarako tresna nagusiak	<b>19</b>
Hezkuntza Zerbitzuaren misioa, ikuspegia eta balioak	<b>22</b>
“Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea 2023-2030” Hezkuntza Plana	<b>24</b>
Xedea eta izaera	<b>25</b>
Lan-estrategia	<b>26</b>
Lanketa-prozesua	<b>28</b>
Jarduera-ildoak eta helburu orokorrak (2023-2030)	<b>30</b>
Lehen programazioaldia (2023-2025)	<b>32</b>
Kudeaketa-eredua	<b>78</b>

## HITZAURREA

Vitoria-Gasteizko hiria, bere udalaren bidez, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartean dago 1994tik. Elkarlan hori 1990ean hasi zen, udalak 1990eko *Hiri Hezitzaileen Gutunaren* lanketan parte hartu zuenean, eta bide horri jarraitu zion 2020an hura eguneratu zenean ere. Hiri eta herrietan abiarazitako tresna politiko eta pedagogiko bat da, bai eta mobilizatorako tresna ere, eta hezkuntza proiektu politikoaren zehar-ildo gisa hartzen da haren bidez; horrez gain, tokiko gobernua udalerrian gizartearen eta hezkuntzaren esparruan ari diren gainerako erakunde eta eragileekin lankidetzan jardun behar duela iradokitzen du. *Hiri Hezitzaileen Gutunak* oinarri politiko eta sozial berri bat dakar, ohiko hezkuntza-sistemekin alderatuta, esku-hartze esparruak hedatzen baititu, eta hezkuntzaren garapenean eragile ugari biltzen baititu, erabateko herritartasuna eta gizarte-kohesioa eraiki ahal izateko.

Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartearen lurralde-sare bat Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarea (RECE) da; gaur egun, Espainiako estatuko 235 hirik eta herrik osatzen dute sare hori. Sare horren sorrera sustatu zuten zortzi hirietako bat izan zen Vitoria-Gasteiz, eta sare horretakoa da osatu zenetik, 1996tik. Sare horretako Jarraipen Batzordean parte hartu du 2005-2011 eta 2016-2022 epeetan, eta RECE koordinatu du 2020-2022 epean. Koordinazio-aldi hori RECEren XV. Topaketarekin amaitu zen, Vitoria-Gasteizen antolatu baitzen, 2022ko martxoaren 17an eta 18an; topaketa horretan, Gijon aukeratu zen RECEren hiri koordinatzaile gisa, 2022-2023. urteetarako.

Vitoria-Gasteizko Udala konprometituta dago *Hiri Hezitzaileen* garapenean; ildo horretatik, hezkuntzan espezializatutako zerbitzu bat du, Udalaren Hezkuntza Zerbitzua, udalean zeharkako izaeraz hezkuntzari buruzko politika bat sustatzen duena; gainera, lehen haurtzaroari zuzendutako zenbait zerbitzu zuenean kudeatzen ditu, eta baita hezkuntzaren esparruko beste baliabide batzuk ere.

Hezkuntzaren esparruko udal-politika bi plangintzatan jaso da: Udaleko Hezkuntza Sailaren Plan Estrategikoa, 2012koa; eta Hezkuntza Zerbitzuaren Plan Estrategikoa, 2016-2022 bitartekoa. Jarduketan-ildo nagusiak eta udalaren hezkuntza-politikaren helburu orokorrak definituko zituen tresna baten beharrari erantzuten zioten bi planek, horrela Vitoria-Gasteizko hiria *Hiri Hezitzaile* gisa sendotzeko bidean aurrera egiteko; horretarako, udalerriak gizartearen eta hezkuntzaren esparruan bizi zituen errealitate eta beharretara egokituko ziren udalaren esku-hartzeak.

Dokumentu honen bidez, proposamen bat aurkezten dizuegu, hezkuntzaren esparruko hirugarren udal-plangintza litzatekeena: *“Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea 2023-2030” Hezkuntza Plana*; planean, 6 jarduera-ildo antolatu dira, bai eta zenbait helburu orokor ere, 2023-2030 aldirako:

1. Lehen haurtzarorako hezkuntza.
2. Hezkuntza jarduketara eremu formalean eta ez-formalean.
3. Ekitatea eta kalitatezko hezkuntza inklusibo baterako eskubidea bermatzea.
4. Hezkuntza eta espazioaren eta denboraren erabilerak.
5. Hezkuntza eremuan trebatzea, laguntzea eta parte hartzea.
6. Udal barneko, erakundeen arteko eta gizarte eta hezkuntzako eragileekiko lankidetzak.

Esku hartzeko zehaztutako 2023-2030 denboraldian, hiru espazio tenporal bereizi dira programaziorako: 2023-2025, 2025-2027 eta 2027-2029 epeak; planean proposatutako helburu orokorreari erantzun nahi zaie horien bidez. Eta horrela, dokumentu honek proposamen bat ere badakar programazioko lehen aldirako, 2023-2025 aldirako. Aldi horretako helburuen garapenerako ikaskuntzak kontuan hartuta eta, horrez gain, gizarte eta hezkuntzaren esparruan sortu daitezkeen beharrak eta izan daitezkeen aldaketak aintzat hartuta, bigarren programazioa diseinatuko da 2025-2027 aldirako. Ildo horretatik, programazio hori amaitzen denean, 2027-2029 aldirako programazioa diseinatuko da. Horrela, 2029-2030 ikasturtean Planaren azken ebaluazioa egingo da.

Udalak Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa sendotzeko duen konpromisoaren adierazgarri da plan hau, eta gure udalerriko hezkuntza-beharrei eta erronkei kolektiboki erantzuteko gai izango den hezkuntza-ingurune baten eraikuntzan modu ordenatu eta planifikatu batean eragiten jarraitzeko nahia adierazten du. Haren garapenean, ezinbestekoa da sailen arteko lankidetzak eta hezkuntzan eta hezkuntza-esparruan esku hartzen duten beste erakunde, elkarte eta eragileekin elkarlanean jardutea.

Planaren 2023-2025 programazioak jasotzen dituen programek ez dute agortzen Udalaren hezkuntza-jarduera. Horrela, Plan honek ez ditu jasotzen hirian indartsu kontsolidatu diren hezkuntza-zerbitzu, baliabide edo programa guztiak, ez eta beste udal plan batzuetan berariaz jasota gera daitezkeenak ere.

## INPLIKATUTAKO ARAU- ETA PROGRAMA-ESPARRUA:

### NAZIOARTE MAILAN:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948.
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1966.
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, 1966.
- Haurren Eskubideen Konbentzioa, 1989.
- Vienako Adierazpena eta Egintza Programa, 1993.
- Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 2006.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak 2030 (GIH 2030), 2015.
- Hezkuntza 2030. Incheon Adierazpena eta 4. Garapen Iraunkorraren Helburua gauzatzeko Ekintza Esparrua, 2015.
- Hiri Hezitzaileen Gutuna, 2020.

### EUROPA MAILAN:

- Europako Kontseiluaren Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, 1950.
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 2000.
- Hirian giza eskubideak babesteko Europako Gutuna, 2000.

### ESTATU MAILAN:

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzarena (abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak, Hezkuntzarenak, aldatua).
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa.
- 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, tratu-berdintasunerako eta diskriminazio ezerako lege integralarena.
- Otsailaren 20ko 1/2023 Legea, Garapen Iraunkorrerako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzkoa.

## ERKIDEGO MAILAN:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko oinarrizko legea.
- 13/1988 Legea, urriaren 28koa, Euskadiko Eskola Kontseiluena (ekainaren 28ko 3/2018 Legeak aldatua).
- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoarena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunarena (martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).
- 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.
- 3/2009 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea aldatzen duena.
- 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, genero-identitate arrazoiengatik ez diskriminatzeari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzkoa.
- 1/2013 Legea, urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeena.
- 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena.
- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoari buruzkoa.
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan EAEn 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haur-eskolak arautzen dituena.
- Azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuko zenbait artikuluren indarraldiari eusten diona.
- Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
- Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezarri eta EAEn ezartzen duena.
- Abenduaren 22ko 237/2015 Dekretua, Haur Hezkuntzako curriculuma ezarri eta EAEn ezartzen duena.
- Irailaren 6ko 127/2016 Dekretua, Batxilergoko curriculuma ezarri eta EAEn ezartzen duena.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Otsailaren 1eko 95/2022 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituena.

- Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana, 2016-2020.
- Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailaren Heziberri 2020 Plana, euskal hezkuntza-sistema hobetzeko.
- Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru-plana, 2019-2022.
- Euskal hezkuntza-sistamarako hezkidetzako II. Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean, 2019-2023.

#### TOKI MAILAN:

- Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda.
- Vitoria-Gasteizko Haur eta Nerabeentzako II. Udal Planaren luzapena.
- Bizikidetzeta eta Aniztasun II. Plana. Hirirako eskubidea: herritartasun inklusiboa eta diskriminaziorik gabea (2023-2030).
- Vitoria-Gasteizko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana. IV. Plangintzaldia (2018-2022).
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2019-2022).
- Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Plana (2023-2030).
- V. Gazte Plana (2023-2025).
- Herritarren Parte-hartzerako Udal Plana (2020-2023).
- Garapenerako Lankidetzaren Gida-Plana (2022-2025).
- Hiri Azpiegitura Berdearen estrategia.
- Vitoria-Gasteizko Klimaren eta Energia Jasangarriaren Ekintza Plana (PACES 2030).
- Vitoria-Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana 2021-2025.



## ESPARRU KONTZEPTUALA: HIRI HEZITZAILEA

Aurreko atalean, plan honen edukiei eragiten dien esparru legegile eta programatikoaren berri eman da. Horien artean, *Hiri Hezitzaileen Gutuna* aipatu da, kontuan hartuko baitugu honako plan honen esparru kontzeptuala garatzerakoan, beronen azken helburua Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa gero eta indar handiagoz sendotzea denez.

Lehen ere adierazi dugunez, Vitoria-Gasteiz, bere udalaren bidez, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarteko kide da 1994tik. Udalak, 1990ean, *Hiri Hezitzaileen Gutuna* egiten parte hartu zuen, eta parte hartu zuen 2020an gutuna eguneratu zenean ere. Lankidetzeta horri eutsi dio orduetik gaur egunera arte. Denboraldi horretan, nabarmendu beharra dago Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarearen (RECE) koordinazioaz arduratu dela Vitoria-Gasteiz 2020tik 2022ra. Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarteko Espainiako sarea da RECE, eta, gaur egun, 235 hirik eta herrik osatzen dute. Sare horren sorrera bultzatu zuten zortzi hirietako bat izan zen Vitoria-Gasteiz, eta hango kide da eratu zenetik, 1996tik.

*Hiri Hezitzaileen Gutunak*, hezkuntza-eskubidearen hedadura gisa, *Hiri Hezitzaile* batean bizitzeko eskubidea berretsi beharra dagoela adierazten du, hainbat printzipio garatzea ahalbidetzeko faktore garrantzitsu den neurrian; besteak beste, printzipio hauek garatzeko: pertsona guztien berdintasuna, gizarte-justizia, lurralde-oreka, eta horren beharrezkoak diren jasangarritasuna eta erresilientzia. Hala, tokiko gobernuek *Hiri Hezitzailea* gero eta gehiago sendotzeko duten erantzukizuna jartzen du agerian, haren printzipioak proiektu politikoaren barnean jasoz horretarako.

Argi erakusten du pertsona guztiok ez ditugula aukera berak baliabideak eskuratzeko, baliatzeko eta kontrolatzeko orduan. Horregatik, azpimarratzen du hezkuntza tresna ahaltsua izan daitekeela gizarte berdinzaleago batera eta gizarte-kohesiora bidean aurrera egiteko, eta hezkuntza-ekitatea berdintasun hori sustatzeko estrategia garrantzitsua dela dio.

*Hiri Hezitzaileen Gutunak* hezkuntzaren ikuskera hedatuago bat azpimarratzen du, eskolaren hormak gaindituz hiri osoa hartuko duen ikuspegi bat. Haurtzaroan hasten da hezkuntza, baina ez da inoiz amaitzen, eta ez da lanerako edo lanbiderako trebakuntzara mugatzen. Herritartasunerako hezkuntza bat da, bizitzan osoan zeharrekoa, eta, ikuspegi horretatik, administrazio guztiek, esku hartzen duten eragile guztiek eta, oro har, herritar guztiek hezteko eta hiri heziketarako gune bihurtzeko beren ardura hartzen dute. Ildo horretan, *Hiri Hezitzailea*, elkarrekin partekatzen dugun zeregina den aldetik, hiri horren eraikuntzan sartuta dauden eragile guztien lankidetzaren bidez soilik izango da posible, eta, hortaz, beharrezkoa izango da gizarte eta hezkuntzako eragileak udalaren

hezkuntza-politiken garapenerako baliozko solaskideak direla onartzea. Beraz, Hiri Hezitzaileek beren hezkuntza-erakunde formalekin eta beren esku-hartze ez-formalekin (hezkuntza araututik kanpoko asmo hezitzailearekin) eta informalekin (asmo hezitzailearik gabeak eta planifikatu gabeak) elkarlanean jardungo dute, bide bilateralen edo multilateralen bidez, beren helburuak betetzeko.

*Hiri Hezitzailea* gero eta gehiago sendotzeko prozesua prozesu iraunkor bat da, eta bere helburua komunitate eta herri aske, arduratsu eta solidario bat eraikitzea da; aniztasunean elkarrekin bizitzeko gai izango den, gatazkak modu baketsuan konponduko dituen eta guztion onerako lan egiteko gai izango den komunitate eta herri bat. Gaur egun gizadiak aurrez aurre dituen erronkez jabetzen diren herritarrak izango dira, eta bizi dugun une historikoak eskatzen dituen irtenbideen bilaketan erantzunkidetasunez jokatzeko modua emango dioten ezagutzak eta trebetasunak izango dituzte.

*Hiri Hezitzaileak* nortasun propioa duela jasotzen du gutunak gainera, eta kokatzen den herrialdean integratuta dagoela. Hortaz, bere identitatea eta parte den lurraldea elkarren mendeko dira. Bere ingurunearekin, lurraldeko beste hirigune batzuekin, inguruan duen landa-ingurunearekin eta beste herrialdeetako hiriekin harremanak dituen hiria ere bada.

Ikuspegi planetario batetik, herrialde guztietako udalerriek, beren tokiko dimentsiotik, herritartasun demokratiko oso bat esperimentatu eta sendotzeko plataforma gisa jardun behar dute; bizikidetzak baketsua sustatu behar dute, balio etikoetan eta zibikoetan trebatuz, gobernu demokratikoak hartu ditzakeen askotariko moduekiko errespetua izanez eta ordezkaritza eta partaidetzarako kalitatezko mekanismoak sustatuz. Inoiz baino premiazkoagoa da balioetan eta giza eskubideetan oinarrituta hezteak, zentzua ematen baitute horiek, estimulua eskaintzen baitute, bide-orri demokratikoa urratzen baitute, eta soseguz bizitzea ahalbidetzen baitigute.

Bizitzari eta, nola ez, egungo eta etorkizuneko gizartei datzekien aniztasuna azpimarratzen du. Horregatik, erronketako bat identitatearen eta aniztasunaren arteko oreka eta harmonia sustatzea izatea proposatzen du, hura osatzen duten komunitateen ekarpenak kontuan hartuta, bai eta han bizi diren pertsona guztiek beren nortasun kulturean aitortuak sentitzeko duten eskubidea ere. Halaber, adierazten du gaur egungo desafioa berezitasunetarako eskubidea aitortzea dela, berdintasuna sustatzeko eta komuna dena eraikitzeko esparru batean.

Horrez gain, gutunak dio *Hiri Hezitzaileak* bere jarduera hezkidetzan oinarritutako hirien eraikuntzara zuzentzen duela, bizi garen gizarte-egitura aldatuz, genero-desberdintasunen sortzaile den aldetik; genero-berdintasunera iristeko bidean aurrea egiteko neurriak ezarriko ditu horretarako, eta sortzen diren ondorio guztiei aurre egiteko mekanismoak abiaraziko ditu.

Bizitza osoan zeharreko hezkuntzaren alde egiten du, eta askatasuna eta erantzukizuna bateratzeko kontzientziak mobilizatzen ahalegintzen da, hirian eta planetan bizitzeko modu gisa pertsonak eta naturak elkarrekiko duten mendekotasunaren zentzua piztuz; gogoeta eta pentsamendu kritikoa eta arazo konplexuak ulertzeko gaitasuna sustatuz; politiken diseinuan eta garapenean erantzunkidetasunean oinarritutako parte-hartzea bultzatuz, lurraldearen hondamenik edota pertsonen arteko edo herrialdeen arteko desorekarik ez dakarten bizimoduak imajinatuz eta sustatuz.

Pertsonak interdependienteak gara. Zaintzarik gabe, ezin dugu bizirik iraun. Bizitza osoan zehar, pertsonok zaindu gaitzaten behar dugu, eta zaintza horien mende daude gure biziraupena eta gure ongizate fisiko eta psikikoa; baina, batez ere, bizi-zikloaren une jakin batzuetan, lehen haurtzaroan, adibidez, edo adinean aurrera goazenean, edo gaixotasun larriren bat dugunean, edota desgaitasun-egoeran dauden pertsonen eta gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan. Zaintza aitortu, sustatu eta bultzatu behar du *Hiri Hezitzaileak*, eta gizarte osoa egin behar du horren erantzunkide.

Gogoeta egiten du, gainera, XIX. mendetik XX. menderako trantsizioan superpotentzien artean dagoen oreka erlatiboaren inguruan, nazioartean beste tentsio batzuk ekarri baititu horrek. Gizadiaren zati handi baten bizitza arriskuan jartzen duen krisi ekosozial sakon baten aurrean ari da gertatzen hori guztia; neurrigabeko kontsumoa eta ekonomiari eusteko oinarritzkoak diren baliabide mineralen gainbehera ditu ezaugarri krisi horrek, bai eta elikadura-mendekotasuna, klima-aldaketa, poluzioa, mehatxu pandemikoak eta biodibertsitatearen galera ere. Komunitate zientifikoak adierazi duenez, gizartearen eta ekonomiaren antolamendua eta gure ohiko bizimodua sakon-sakonetik aldatzera bultzatu behar gaitu horrek guztiak.

Hiriaren funtzio hezigarri hori justifikatzen duten arrazoiak esparru sozial, ekonomiko eta politikokoak dira; eta, batez ere, bizikidetzan oinarritutako kultura- eta hezkuntza-proiektu batera orientatuta daude. XXI. mendeko *Hiri Hezitzailearen* erronka handiak hauek dira, horren arabera: lehenik eta behin, hezkuntzan, pertsona bakoitzarengan, “inbertitzea”, hala, gogoeta egiteko, adierazteko, berresteko eta bere giza potentziala garatzeko gai izan dadin, bere berezitasunekin, sormenarekin eta erantzukizunarekin. Bigarrenik, erabateko berdintasunerako baldintzak sustatzea,

pertsona guztiek senti dezaten errespetatzen dituztela eta guztiek errespetatu dezaten, eta elkarrizketarako eta aktiboki entzuteko gai izan daitezten. Hirugarrenik, inor bazterrean utzi gabe eta egiaz, hiriz hiri, herriz herri, ezagutzaren gizartea bat osatzea ahalbidetuko duten faktore guztiak bateratzea. Eta laugarrenik, kontzientzia komunitarioa eta gaitasunak ikastea eta garatzea, berdintasunean eta justizian oinarritutako guztion arteko bizimodua antolatzen.

Horren kontzeptu zabal eta asmo handikoa garatzeko, egiaz halaxe baita *Hiri Hezitzailearena*, Hiri Hezitzaileen Estatuko Sareko Jarraipen Batzordeak, 2020-2022 denboraldian, lantalde bat jarri zuen martxan, kontzeptu hori garatzeko eta, beraz, *Hiri Hezitzailea* gero eta gehiago sendotzeko tokiko gobernuek bideratu beharreko esku-hartzeen gakoak aztertzen. Gako horien artean, hezkuntzaren esparruan udalek izan beharreko eskumenen garapen egokia, lidergo eta konpromiso politikoa, udaletako barne-lankidetzak eta esku hartzen duten gainerako erakunde eta eragileekikoa, gobernantza eta gizarte zibilaren pare-hartzea nabarmendu ziren; eta baita erantzuna eman behar zaien beharrak azaleratzeko diagnostiko zehatzak egin beharra eta esku-hartzearen ebaluazioa ere, zer ikasia ateratzeko eta etengabe hobetzen jarraitzeko.

## VITORIA-GASTEIZ HIRI HEZITZAILE GISA SENDOTZEKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK

2020ko Hiri Hezitzaileen Gutunean jasotzen den Hiri Hezitzailearen kontzeptualizazioa da plan honen abiapuntua. Modu bertsuan, jarduketarako inspirazio diren oinarrizko printzipioetara zuzendutako atala honetan, kontuan hartu dira gutunean zehazten diren printzipioak. Eta, beraz, plan honekin lotuta dauden gutuneko zenbait printzipioren zatiak zehaztu ditugu hemen.

**Hezkuntzarako eskubide unibertsala:** Nazio Batuek onartutako Giza Eskubideen Adierazpeneko 26. artikulua berariaz jasotzen du hezkuntza giza eskubide unibertsala dela, eta xedatzen du pertsona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea, eta doakoa izango dela, oinarrizko eta funtsezko eskolatzeari dagokionez. Horrez gain, giza nortasunaren erabateko garapena eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetuaren sustapena izango dituela xede dio; eta herrien artean eta gizarteko askotariko kolektiboen artean ulermena, tolerantzia eta adiskidetasuna bultzatuko dituela.

Beraz, hezkuntza giza eskubide bat da pertsona guztientzat, eta, horregatik, botere publikoek bermatu beharreko oinarrizko eta funtsezko eskubidea da. Desberdintasunari begira gure gizartean dauden askotariko egoerak kontuan hartzea adierazten du, horrek berak ere eskubide horretarako sarbidean eta eskubide horretaz gozatzerakoan desberdintasunak eragin ditzakeenez.

**Hezkuntza inklusiboa bizitzan zehar:** Hiri Hezitzaile batean bizitzeko eskubidea pertsona guztiek hezkuntzarako duten oinarrizko eskubidearen hedatze gisa proposatzen da. Horrela, hirian bizi diren pertsona guztiek eskubidea izango dute, askatasun- eta berdintasun-baldintzetan, hirian eskaintzen diren prestakuntza, entretenimendu eta garapen pertsonalerako bitarteko eta aukerez gozatzeko. Horregatik, Hiri Hezitzaileak etengabe berritzen du bere konpromisoa, hango biztanleak bizitzan zehar eta alderdi guztietan hezteko. Eta hori posible izan dadin, hiri horretan bizi diren kolektibo guztien behar bereziak hartu behar ditu kontuan.

Testuinguru horretan, berebiziko garrantzia du berdintasun-eskubidea eta diskriminaziorik eza kaltetzen duten oztopo guztiak ezabatzea zuzendutako politikak abiarazteak.

**Hezkuntza-politika zabalak:** Hiri Hezitzailearen ikuspegitik, hezkuntza ez da arlo horretan administrazioei dagozkien eskumenak betetzea soili-soilik; ikuspegi zabalagoa du, eta justizia sozialaren, berdintasunaren, erabateko herritartasunaren, iraunkortasunaren, bizi-kalitatearen eta biztanleen sustapenaren printzipioetan oinarritzen da.

Kontzeptualizazio horretatik abiatuta, eta zeharkakoa eta berritzailea den aldetik, hezkuntzak eskola-adinaren esparrua eta ikasgelaren espazioa gainditu egiten ditu, eta barnean hartzen ditu hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalkaren modalitate guztiak, bai eta hirian gertatzen diren gertaera esanguratsuekin horiek dituzten elkarreragin guztiak ere.

Aniztasuna, bizikidetzeta, berdintasuna eta diskriminaziorik eza: bizitzari datxekion zerbait da aniztasuna. Horregatik, bere jarduerarako oinarri gisa hartzen du aniztasuna *Hiri Hezitzaileak*. Gizartea eta norbera aberasteko faktore gisa ulertzen da aniztasuna, eta, gizartean bizi garen pertsonak garen aldetik, geure nortasunaren osagai gisa. Errespetu eta aitortza printzipioetan oinarritutako aniztasun horrek pertsona guztien eskubideak erabat gauzatzen laguntzen duten estrategiak bultzatzera behartzen du, pertsona horien beharrei erantzuten dietenak eta haien garapena muga dezakeen edozein oztopori aurre egiten diotenak.

Hurbilketa horretatik abiatuta, hirian bizi diren pertsona guztiek aukera-berdintasunean eta modu justu eta ekitatibo batean kalitatezko hezkuntzan sarbidea izatea funtsezko faktorea da desberdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eraginei aurre egiteko.

Berdintasun horrek ez du kontraesanik sortzen talde guztiek beren identitaterako duten eskubidearekin, ez eta pertsona guztiek beren identitatean aitortuak izateko duten eskubidearekin ere. Gaur egungo erronka berezitasunetarako eskubidea aitortzea da, berdintasuna eta komuna eraikitzea sustatzeko esparru batean.

Gizarteratzea eta kohesio soziala: *Hiri Hezitzaileak* aurrez aurre dituen erronketako bat gero eta polarizatuagoa den gizarte honetan hezkuntzaren bidez desberdintasunak ez direla areagotzen bermatzea da; aitzitik, pertsonen erabateko gizarteratzea lortzeko tresna izan behar du hezkuntzak, pertsonen artean eta auzoen edo hiriko guneen artean berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatuz horrela.

Horretarako, ezinbestekoa izango da esku hartzen den errealitatea eta desberdintasun-egoerak edo diskriminazioa sortzen duten edo sortu dezaketen aldagaiak ahalik eta sakonen ezagutzea (generoa, errenta, etnia, hizkuntza, adina, desgaitasuna, sexu edo eta genero-identitatea, sexu-orientazioa, etabar.), alde batetik, desberdintasunei aurre egiteko mekanismoak eta neurriak ezarri ahal izateko, eta, bestetik, hezkuntza inklusiboaren bidean aurrera egiteko.

Horri begira, garrantzi berezia du **intersektionalitatearen** proposamenak; izan ere, desorekak edo diskriminazioak sortzeko gai diren askotariko aldagaien elkarreraginetik sortzen direla

desberdintasun sistematikoak onartzen du proposamen horrek; aldagai horiek modu berezi batean eragiten dute pertsona bakoitzarengan, eta eragina duten bakoitzaren aukeretan ere, hezkuntzakoetan ere bai.

Gainera, desberdintasun eta diskriminazio-egoeren konplexutasunari eta berezitasunari heltzeko, ekitatearen printzipioetan oinarritutako politikak, estrategiak, neurriak, etab. behar dira; eta berriazko neurrien bidez desorekak murriztera, baliabideak beharren arabera banatzera eta horrelako zereginetara zuzendu behar dute, asmo osoz; horixe da, hain zuzen, **hezkuntza-ekitatea** deritzona.

**Erantzunkizun partekatua hezkuntzan:** azken hamarkadetan hezkuntza-sistemari esleitu zaizkion askotariko funtzioek hezkuntza eskolatzarekin parekatzera eraman gaituzte. Baina, gaur egun, hezkuntza-ereduak argi erakutsi du zer muga dituen egungo gizartean hezkuntzak planteatu dituen erronka eta behar guztiei aurre egiteko; gizarte-ereduan gertatzen ari diren aldaketa azkarrak eta globalizazioa ditu ezaugarri, besteak beste, gizarte horrek. Agertoki horretan, gure udalerrian, Vitoria-Gasteizen, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten eragile guztien arteko bilbe edo hezkuntza-sare bat osatzearen alde egin behar dugu; gure lurraldean diharduten eragile hauek kontuan hartuta: familiak, eskolak, erakundeak, gizarte eta hezkuntzako eragileak, etab. Horrek aukera emango baitu *Hiri Hezitzailean* jasotzen diren printzipioei eta helburuei heltzeko. Hala, esparru horretako edozein esku-hartze esanguratsuk baterako erantzukizuna eta esku hartzen duten eragileen arteko koordinazioa bermatu behar ditu.

Tokiko administrazioari dagokionez, eta nahiz eta hezkuntzako eskumen garrantzitsuenak ez dagozkion hari, argi eta garbi adierazi behar da hezkuntzari eta *Hiri Hezitzailea* sendotzeari egiten dien ekarpenaren garrantzia, biztanleriaren eta lurraldearen behar eta interesen ikuspegitik hurbileneko administrazioa horixe denez.

**Kulturarako sarbidea:** *Hiri hezitzaileak* kulturarako eskubidea eta pertsona guztien eta, bereziki, egoera ahulenean dauden kolektiboen parte-hartzea sustatuko du hiriko bizitza kulturalean, inklusiorako, kide izatearen sentimendua eta bizikidetzaren ona sustatzeko bide gisa. Kultura – ondasunez gozatzeaz gain, parte-hartze kultural horrek barne hartuko ditu herritar guztiek kultura bizi eta aldakor bati egin diezaioketen ekarpena eta herritarrek kultura-ekipamenduen eta kultura-ekimenen kudeaketan duten inplikazioa. Era berean, *Hiri Hezitzaileak* arte-hezkuntza, sormena eta berrikuntza sustatuko ditu, abangoardiako nahiz herri-kulturako kultura – ekimenak sustatuz eta babestuz, garapen personal sozial kultural eta ekonomikorako bitarteko gisa.

**Genero-ikuspegia eta hezkidetza:** Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa sendotzeak, inplizituki, hiri hezkidetzaillea eraikitzea dakar. Horretarako, genero-ikuspegia bildu behar da, sistematikoki, sendotze horretarako bidean jartzen diren politiketan eta programetan. Ikuspegi horrek ikusmolde feminista intersektional bat izango du abiapuntu, eta horrek, nahitaez, esan nahi du haren azken helburua indarrean dagoen sistema heteropatriarkalari aurre egitea izango dela, genero-desorekak sortzen dituen; gainera, kontuan hartu behar da genero-desorekak desberdintasuna edo diskriminazioa sortzen duten beste egoera batzuekin duen elkarreragina.

Hezkuntzaren esparruan, hezkidetza pertsona guztien garapen individuala sustatzen duen proposamen pedagogiko integral da, albo batera utzita genero-estereotipoak eta rolak; eta pertsona guztien ahalduntzea eta gaitasunen garapena sustatzen du, banaka nahiz taldean genero-berdintasuna erdiesteko bidean aurrera egin ahal izateko. Horretarako, oraindik hezkuntza formalean eta ez-formalean sumatzen diren genero-desberdintasunen espazio eta mekanismoak hautemateko bideetan sakontzen du hezkidetzaren praktikak, eta abian jartzen ditu eraldaketarako tresnak eta baliabideak.

**Hizkuntza-normalizazioa eta euskararen sustapena:** Vitoria-Gasteizen ondare immaterialaren elementu nagusietako bat bere hizkuntza da, transmisiorako bide ez ezik nahi dugun gizartea sortzeko bide ere badena. Vitoria-Gasteizek, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako udalerriek bezala, bi hizkuntza ofizial ditu: euskara eta gaztelania. Baina euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, hizkuntza gutxitua da gure udalerrian gaztelaniarekiko. Horregatik, bi hizkuntzen erabilera bermatzeaz gain, euskararen erabilera sustatzen lagunduko duten hezkuntza-jarduerak garatzea lortu nahi da, herritarrei ikasgeletatik harago hizkuntza horretan bizi ahal izateko aukera emanaz.

**Hizkuntza-aniztasuna:** hainbat herrialde eta kulturetatik datozen azken urteotako migrazio-mugimenduen errealitateak hizkuntza-aniztasun handia sorrarazi du udalerrian. Horregatik, euskararen eta gaztelaniaren erabileraz gain, beharrezkoa da hizkuntza horien tratamenduari buruzko zenbait proposamen egitea, bai eskola-eremuan eta bai eskola-eremutik kanpo, eta arreta berezia jarri behar da hizkuntza-harreran eta esku hartzen duten udal-politiken koherentzian. Hala, horiek elementu integratzaile eta pertsonen kohesiorako faktore izan daitezen, eta hizkuntza dela-eta eskubideak, zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko sor litezkeen oztopoei aurrei eginez.

**Belaunaldien arteko elkarrizketa:** *Hiri Hezitzaileak* belaunaldien arteko hurbiltasuna eta lankidetzaren sustatuko ditu, eta adinkeriarri aurre egingo dio, ez bakarrik bizikidetzaren baketsurako formula gisa, baita adin desberdinetako pertsona-taldeen artean proiektu komunak eta partekatutako bilatzeko ere. Proiektu horiek ekimen eta ekintza zibikoak egitera bideratu beharko liriateke. Ekimen eta ekintza



horien balioa, hain zuzen ere, belaunaldien arteko izaeran eta adin bakoitzari dagozkion gaitasun, bizipen eta balioen aprobetxamenduan datza. Edadismoari aurre egiteaz gain, zahartze aktiboaren eta orokortasunaren paradigmatik abiatutako adinekoentzako hezkuntza-jarduera proiektatu behar da. Esparru horiek garapen pertsonala, parte-hartzea eta gizarteari egindako ekarpena nabarmentzen dituzte.

**Garapen Iraunkorra eta Elkartasun Globala:** *Hiri Hezitzaileak* informazioa, ezagutza kritikoa eta garapen jasangarriaren eta elkartasun globalaren dimentsio globalen ulermena sustatu behar ditu, hezkuntza-, sentsibilizazio- eta komunikazio-jardueren bidez, bai hezkuntza formalean – haurtzarotik unibertsitate aroraino-, bai hezkuntza ez-formalean. Horrela, tokiko gobernuek beren lan-planetan eta hezkuntza-programetan sartzearen alde lan egingo dute, bai eta materia hori planifikatzean. Horrez gain, herritarrei zuzendutako sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduerak, ikerketa, gaitasunetan oinarritutako prestakuntza, eta abar bultzatuko dituzte.

**Ingurumen-jasangarritasuna:** hezkuntza- eta gizarte-esparruaren nahiz esparru ekonomikoaren garapenaz gain, *Hiri Hezitzaileak* konpromisoa hartu behar du eskubideak eta behar materialak asetzearekin, bizimodu duin bati eusteko horrela (elikadura, ura, etxebizitza, saneamendua, energia, mugikortasuna, ingurune seguru eta osasungarria). Gizakiaren ekodependentzia eta baliabideen eta planetaren muga fisikoak kontuan hartuta antolatu behar da hiria. Modu aktiboan sustatuko dira biztanle guztien parte-hartzea eta erantzunkidetasuna, bidezko bizimodu bati eta kontsumo erresiliente eta jasangarriari begira, eta nahikotasunaren, banaketaren eta justiziaren printzipioetan ardaztuta; eta egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat biziraupen duina bermatzea ahalbidetzen duten ondasun komunak babesteko neurriak hartuko dira.

**Informazioa eskuratzea:** *Hiri Hezitzaileak* informazio nahikoa eta ulergarria bermatu beharko du, eta bertako biztanleak informatzera bultzatu beharko ditu. Gaur egun eskuragarri dagoen informazio-emari handia hautatu, ulertu eta tratatzeak dakarren balioa kontuan hartuta, pertsona guztien eskura dauden baliabideak jarriko ditu, eta hiriko gune eta esparru guztietan konektatzeko aukera bermatuko du. *Hiri hezitzaileak* informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzko prestakuntza-programak bultzatuko ditu adin eta gizarte-talde guztientzat, eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko, inor atzean ez uzteko eta eten digitala deiturikoari aurre egiteko. Era berean, pertsona guztien zientzia- eta ikerketa-gaitasunak eta trebetasunak sustatuko ditu, batez ere haur eta gazte garaian, errealitatearen begirada kritikoa eta objektiboa indartzeko. Oso garrantzitsua da *Hiri Hezitzaileak* laguntza berezia behar duten kolektiboari arreta ematea, eta informazio-, orientazio- eta laguntza-gune espezializatuak jartzea haien eskura. Adimen artifiziale eta Big Data

bezalako balizko kontrolerako tresnek aurrera egiten badute, pribatutasunarekiko, intimitatearekiko eta autonomiarekiko errespetua bermatzeaz arduratuko da *Hiri Hezitzailea*.

**Gobernantza eta herritarren parte-hartzea:** *Hiri Hezitzailea* gobernantza-paradigma batetik eraikiko da, eta administrazio publikoak eta herritarrak eta herritarren erakundeak lankidetzan arituko dira esparru horretan, hiria sendotzeko bidean aurrera egiteko horrela, eta herritarren artean erabakiak hartzeko prozesuak zabaltzeko. Tokiko gobernuek, eskumena duten erakundeekin eta gizarte eta hezkuntzaren esparruan esku hartzen duten erakundeekin lankidetzan jarduteaz gain, kontuan hartuko dituzte ekimen pribatuak eta parte hartzeko berezko beste modu batzuk ere.

Lankidetzaren horrek informazio eta komunikaziorako kanal egonkorak izatea eskatzen du, bai eta esku hartzen duten eragileei zuzendutako ahalduntze-guneak eta prestakuntzakoak izatea ere. Bai pentsamendu kritikoa eta beharrezko ezagutza sustatzeko, zein autodeterminazioa eta parte-hartze ahaldundua bermatuko duten lan-prozesu eta metodologiak ezarri ahal izateko.

Haurrei, nerabeei eta gazteei gaur egungo herritar direla aitortuko zaie, eta eskubidea izango dute bitzita komunitarioaren kudeaketan eta hobekuntzan parte hartzeko, pertsona helduen baldintza beretan; eta, horretarako, bide eta tresna egokiak helaraziko zaizkie. Garrantzi berezia du, halaber, adinekoen benetako parte-hartze eraginkorra ahalbidetuko duten lan-formatu egokiak indartzeko beharrak.

## PLANGINTZARAKO TRESNA NAGUSIAK

Plan hau, besteak beste, udalaren hezkuntza-politika garatzearen emaitza da, eta, Hezkuntza Zerbitzuaren kasuan, honako plangintza-tresna hauetan zehaztu da:

1.- **Udaleko Hezkuntza Sailaren Plan Estrategikoa, 2012.** Plan honen xedea Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzailearen* eraikuntzaren garapena zehaztea eta bide horretan aurrera egitea izan zen. Udalaren hezkuntza-jarduketa modu koherente batean garatu, zuzendu eta koordinatzeko xedez, proposamen integrala izan zen.

Hauek izan zituen jarduera-ildo nagusi:

- Lehen Hautzaroarentzako hezkuntza-arreta.
- Prestakuntza, ezagutza eta berrikuntza.
- Hezkuntza-eskubidearen ekitatea eta bermea.
- Herritartasunarekin lotutako balioak eta parte-hartzea.
- Hiria ondare.
- Espazioen eta denboren erabilera berriak.
- Udalaren hezkuntza esku-hartzea orientatzea eta koordinatzea.

2.- **Hezkuntza Zerbitzuaren Plan Estrategikoa (2016-2022).** Plan hau ez da Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-politika planifikatzeko eta antolatzekeo tresna izan soilik; horrez gain, udalak Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa gero sendoagoa izan dadin hartutako konpromisoaren adierazgarri ere izan da, jarduketa kolektibo baten bidetik, betiere, eta erakunde eskudunekin, esku hartzen duten eragileekin eta herritarrekin garatzeko xedez. 2016-2022 denboraldian garatu da, bi urteko hiru programazioren bidez: 2016-2018, 2018-2020 eta 2020-2022.

Hauek izan zituen jarduera-ildo nagusi:

- Hezkuntza-zeharkakotasuna.
- Lehen hautzaroaren hezkuntza-arreta.
- Berdintasuna eta hezkuntzarako eskubidea bermatzea.
- Ezagutza eta praktika onak hezkuntzan.
- Trebakuntza, gaikuntza eta laguntza hezkuntzan.
- Jabekuntza eta parte-hartzea hezkuntza-eremuan.
- Hezkuntza eta hiria. Bere ondare ukigarria eta ukiezina.
- Hezkuntza eta espazio eta denboraren erabilerak.
- Kanpoko informazioa eta komunikazioa hezkuntzan.
- Erakundeen arteko kooperazioa eta nahastutako hezkuntza- eta gizarte-eragileekiko lankidetzak.

3.- **Hezkuntza Zerbitzuaren programazioa 2022-2023 ikasturterako.** Hezkuntza Zerbitzuaren 2016-2022ko Plan Estrategikoa 2021-2022 ikasturtean amaitu zen. Plan honen plangintza-aldia 2023-2030. urteek zehazten dutenez, beharrezkoa izan da zerbitzuaren jarduerarako programazio bat zehaztea 2022-2023 ikasturterako, horrela, plan baten eta bestearen arteko lotura egiteko.

4.- **Udalaren Haur Eskolen Sarearen Hezkuntza Proiektua.** 2005ean, udaleko talde politikoek proposamen ordenatu eta egituratu batzuk adostu zituzten, eta “Vitoria-Gasteizko Udalaren Haur Hezkuntzako Eskolen Sarearen Hezkuntza Proiektuaren Oinarriak Printzipio Gidariak” dokumentua ekarri zuten horiek. Gizartean eta arauetan izan diren aldaketek eta Udalaren Haur Eskolen Sarearen dimentsionamendu berriak hezkuntza-proiektua berriro landu beharra eragin zuten, gogoeta egiteko eta parte-hartzean oinarritutako lanketa egiteko helburuarekin. Azkenean, 2019ko abenduan onartu zen berori. Dokumentu hori abiapuntu hartuta, Udalaren Haur Eskolek, urtero, Ikastetxearen Hezkuntza Plana egiten dute.

Bi multzo handiren inguruan antolatzen da Hezkuntza Proiektua:

1.- Udalaren Haur Eskolen Sarearen printzipio pedagogikoak:

- Nola ulertzen dugu haurra?
- Aniztasunarekiko arreta.
- Pertsona helduaren zeregina.
- Harremana eta parte-hartzea familiekin.
- Hizkuntzen tratamendua.
- Hezkidetzak.
- Ingurumen-iraunkortasuna.

2.- Udalaren Haur Eskolen Sarearen hezkuntza-praktika.

- Harrera egiteko eta eskola-bizitzara ohitzeko aldia.
- Eguneroko bizitza antolatzen duten ardatzak.
- Jolasaren aurkerak.
- Espazio eta material hezitzaileak.
- Antolamendua eta funtzionamendua.
- Ebaluazioa.

5.- **Udal Haur Eskolen Sareko Hezkidetzako Plan Gidaria (2022-2029).** Planaren helburua hau da: udalaren bost haur-eskoletan, gidari izatea hezkuntza-jardueran eta familiekiko harremanetan hezkidetzaren printzipioak ezarri ahal izateko. Udalaren Haur Eskolen Sareko Hezkuntza Proiektu

berrian, 2019-2020 ikasturtean ezarri zen hartan, biltzen diren printzipio pedagogikoetako bat da hezkidetzak.

Hezkidetzako Plan Gidaria 2022-2029 aldian garatuko da, bi urteko hiru programazioren bidez: 2022-2024, 2024-2026 eta 2026-2028. 2028-2029 ikasturtean Planaren azken ebaluazioa egingo da.

Hauek ditu jarduera-ildo nagusi:

- Sexismoa eta bazterketak jolasetan, materialetan eta espazioetan.
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista eta inklusiboa.
- Aniztasunari erantzuten dion hezkuntza afektibo-sexuala.
- Indarkeriarekiko 0 tolerantzia 0 urtekoetatik hasita.
- Erantzukizun eta erantzunkidetasun parekide familiarra.

Hezkuntzan, plangintzarako ekimenak ez dira agortzen aurrez zehaztutako horrekin. Hezkuntza Zerbitzuak sailen arteko eta erakundeen arteko lanerako gune eta tresnak ditu, esku hartzeko esparru jakin batzuen plangintza egitea ahalbidetzen diotenak.

Horrez gain, kontuan izan behar da *Hiri Hezitzaileen Gutuneko* lan-helburu batzuk udalaren beste politika batzuetan ere badaudela, beste udal-zerbitzu batzuek bultzatu eta koordinatu dituztenetan. Horregatik, *Hiri Hezitzailearen* garapenean izan daitekeen plangintzak atal honetan jasotakoa gainditu egiten du.

## HEZKUNTZA ZERBITZUAREN MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

**MISIOA:** hezkuntza-arloan Udal Administrazioari esleitutako zenbait gaitasun gauzatzea; udalerrian eskolatze eta hezkuntzaren garapenean eskumena duten erakundeekin elkarlanean aritzea; eta, esku hartzen duten udal-zerbitzuekin, erakundeekin eta gizarte- eta hezkuntza-arloko eragileekin lankidetzan, hezkuntza-jarduera bat sustatzea, Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa sendotzen laguntzeko.

**IKUSPEGIA:** Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa sendotzea; horretarako, udalerrian hezkuntzak dituen behar eta erronkei erantzutera bideratutako taldeko jarduera sustatuko da.

**BALIOAK:** Hezkuntza Zerbitzuak, bai bere barne-funtzionamenduan eta bai kanpoko esku-hartzeetan, honako balio hauek ditu euskarri:

- **Kalitatea:** hautemandako beharren arabera laneko helburuak ezartzeko eta betetzeko gaitasuna, bai eta lan-prozesuen etengabeko hobekuntzaren esparruan horiek garatzekoa ere.
- **Koherentzia:** errealitatera egokitutako zenbait lan-helbururen lorpenerako aplikatutako neurriak eta erabilitako tresnak harmonizatzea, bai eta horien osagarri izango diren beste estrategia eta jarduketa batzuk ere.
- **Komunikazioa:** elkarrekin konektatutako kanal eta espazioen multzo bat ezartzea, esku hartzen duten eragile guztiei informazioa emateko eta horiekin hitz egiteko, erabakiak hartzeko prozesuetan hobetzeko eta elkarrekin aritzeko, lankidetzaren mesedetan.
- **Lankidetzaz:** udaleko sailekin, administrazioekin eta esparru honetan esku hartzen duten eragileekin harremanak izatea eta lanerako prozesuak ezartzea, *Hiri Hezitzailea* sendotzeko helburuak lortzeko bidean elkarrekin aritzeko.
- **Parte-hartzea:** laneko helburuetan sartuta duten eragileak esku-hartzearen diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan arduraz parte hartzeko solaskide baliagarriak direla aitortzea, hautemandako beharretarako irtenbide partekatuak bilatu ahal izateko.

- **Kontuak ematea:** inplikaturako eragile guztiei, modu zehatz batean eta inpartzialtasunez, helburuekin lotuta edo agindutako lanarekin lotuta egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri ematea.
- **Jasangarritasuna:** atal honetan, gauzatutako esku-hartzearen eta haren onuren gaitasunarekin lotu da jasangarritasunaren kontzeptualizazioa, esku-hartzea amaitu ondoren irauteko eta garatzeko duen gaitasunarekin, zehazki.
- **Gardentasuna:** inplikaturako eragileei eta, oro har, herritarrei Hezkuntza Zerbitzuaren esku dagoen eta garrantzitsua edo interesgarria den informazio publiko guztia jakinarazteko konpromisoa.

# **“VITORIA-GASTEIZ HIRI HEZITZAILEA 2023-2030”**

## **HEZKUNTZA PLANA**



## XEDEA ETA IZAERA

“Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea 2023-2030” Hezkuntza Planaren xeda da Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa sendotzen joan dadin lagunduko duten lan-ildoak eta helburuak ezartzea, 2023-2030 aldirako, eta horrekin koherentziaz jokatzuz, jarduketa nagusiak hiru programazio-alditan planifikatzea eta antolatzea (2023-2025, 2025-2027 eta 2027-2029). 2029-2030 ikasturtean Planaren azken ebaluazioa egingo da.

Hezkuntza Planak hiri-izaerako plan baterantz aurrera egin nahi du. Horretarako, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuari dagozkion helburuak eta jarduketak zehazteaz gain, hezkuntzaren esparruan udal gisa gauzatzen diren ekimenak ere biltzen ditu, bai eta Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa sustatzeko udalerrian dauden erakunde eta elkarteekin garatzen diren beste batzuek ere.

## LAN-ESTRATEGIAK

*Hiri Hezitzailea* garatzeko, beharrezkoa da argi ulertzea eskolatzetik harago doan zerbait dela hezkuntza; ezin dugu etapa bakarrera mugatu, bizitza osoa hartzen duen zerbait baita. Hezkuntza-komunitateaz gain, politika publikoek eta haren eraikuntzan parte hartu dezaketen eragileek ere izango dute haren garapenaren ardura; hortaz, gero eta eragile kopuru handiagoak eta gero eta eragile mota gehiagok esku hartuko dute hezkuntzaren eta *Hiri Hezitzailearen* garapenean, bai udalean bertan eta bai udaletik kanpo.

Beraz, *Hiri Hezitzailea* garatzeko, berariazko hezkuntza-politikak inplementatzeaz gain, ezinbestekoa izango da beste politika publiko batzuetako helburuetan eta herritarren ekimenetan hezkuntzaren ikuspegia txertatzea. Hala, eragile gehiago eta berriak sartuko dira *Hiri Hezitzailea* sendotzeko bide horretan. Hala ere, *Hiri Hezitzailearen* sendotze-bidean aurrera egiteko estrategiaren osagai gisa beste politika eta ekimen batzuetan hezkuntza-ikuspegia txertatu beharra dagoela adierazten denean, argi eta garbi nabarmendu behar da horrek ez duela ordezkatu behar hezkuntza-esparruko berariazko politikarik; aitzitik, haren osagarri izan behar du.

Bestalde, zeharkako izaera duten eta zeregin horretan sartuta dauden politika publikoetatik eta herritarren ekimenetatik datozen beste irizpide eta helburu batzuk barnean hartu behar ditu berariazko politika horrek.

Izaera duala duen lan-estrategia bat da, hortaz, berariazkoa eta zeharkakoa, eta helburu bera lortzera zuzentzen dira: *Hiri Hezitzailea* sendotzeko bidean aurrera egitea. Horregatik, Hezkuntza Plan honen bidez landu nahi den strategiaren oinarrian, estrategia dual bat dago, eta, haren bidez, hauek inplementatuko dira, modu osagarrian:

- Hezkuntzaren esparruko berariazko politika bat, harekin lotuta dauden politika publikoetako zeharkako irizpideak ere bilduko dituena.
- Eta hezkuntza-ikuspegia txertatzea, esparru horretan esku hartzen duten udal-politiketan.

## LANKETA-PROZESUA

“Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea 2023-2030” Hezkuntza Plana lantzeko prozesua 2022ko uztailean hasi zen, eta fase hauek eta parte-hartzaile hauek izan ditu ordutik.

LEHEN FASEA: Planaren abiapuntuko dokumentua lantzea.

Lehen fase honetan, Hezkuntza Zerbitzuko teknikariek eta Udalaren Haur Eskoletako zuzendariek parte hartu zuten, eta lan-prozesu hau garatu zuten:

- Prozesua aztertzeko eta laneko kronograma egiteko bilera (2022ko uztaileak 5).
- Planaren printzipioei, kontzeptualizazioari, jarduera-ildoari, helburu orokorreari eta egiturari buruzko gogoetarako bilera (2022ko irailak 21).
- Beharrak hautemateko, helburuak planteatzeko eta 2023-2025 aldirako jarduketa-programarako sei gogoeta-gune. Gune horietako bakoitzean, bi esku-hartze esparru landu ziren, eta, horretarako, arlo honetan ari ziren beste udal-zerbitzu batzuetako teknikariak gonbidatu ziren:
  - Lehen gunea: 2022ko urriak 20.
    - Familiei haurren hazkuntzan eta hezkuntzan laguntzea eta familiak ahalduentzea.
    - Guraso-elkarteek eta familiek hezkuntzaren esparruan duten parte-hartzea.Gonbidatutako zerbitzua: Udaleko Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua.
  - Bigarren gunea: 2022ko azaroak 2.
    - Eskola-patioak naturalizatzea.
    - Ingurumen-jasangarritasuna hezkuntzaren esparruan.Gonbidatutako zerbitzua: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia
  - Hirugarren gunea: 2022ko azaroak 15.
    - Udalaren hezkuntza-jardueran euskara sustatzea.Gonbidatutako zerbitzua: Udalaren Euskara Zerbitzua.
  - Aisialdirako hezkuntza.
- Laugarren gunea: 2022ko azaroak 22.
  - Udalerrian Haur Hezkuntzako lehen zikloak izan duen garapena.
  - Haur Hezkuntzako lehen zikloak izan duen garapena Udalaren Haur Eskolen Sarean.

- Bosgarren gunea: 2022ko azaroak 30.
  - Hezkidetza Hezkuntza Zerbitzuaren jardueran.  
Gonbidatutako zerbitzua: Udaleko Berdintasun Zerbitzua.
  - Hezkuntza eskolaz kanpoko eremuan.
- Seigarren gunea: 2022ko abenduak 13.
  - Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programak.
  - Bizikidetza eta ekitatea hezkuntzan.  
Gonbidatutako zerbitzuak: Udaleko Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua, eta Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua.
- Planaren abiapuntuko dokumentua ixteko bilera (2023ko urtarrilak 27).

BIGARRE FASEA: Planaren abiapuntuko dokumentua aurkeztea Udalaren Haur Eskolen Sareko hezitzaileei, dokumentua aztertzea eta haien ekarpenak biltzea.

- Bilera Sansomendi UHEN (2023ko otsailak 13).
- Bilera Zabalgana UHEN (2023ko otsailak 14).
- Bilera Haurtzaro UHEN (2023ko otsailak 16).
- Bilera Zaramaga UHEN (2023ko otsailak 21).
- Bilera Lourdes Lejarreta UHEN (2023ko martxoak 7).

HIRUGARREN FASEA: Planaren abiapuntuko dokumentua aurkeztea inplikatur dauden sail eta zerbitzuetako teknikariei, dokumentua aztertzea eta haien ekarpenak biltzea:

- “Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea” programako sailen arteko lantalde teknikoa (2023ko martxoak 15).
- Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila (2023ko martxoak 27).
- Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (2023ko martxoak 27).
- Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila (2023ko martxoak 30).
- Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua (2023ko martxoak 31).
- Kultura Zerbitzua (2023ko apirilak 24).

LAUGARREN FASEA: planaren abiapuntuko dokumentua aurkeztea inplikatur dauden erakunde eta elkarteei, dokumentua aztertzea eta haien ekarpenak biltzea:

- Haurreskolak Partzuergoa (2023ko otsailak 3).
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza (2023ko martxoak 7).
- UPV/EHU (2023ko martxoak 20).
- Berritzeguneak (2023ko martxoak 30).

BOSGARREN FASEA: planaren abiapuntuko dokumentua aurkeztea Hezkuntza Zerbitzuak koordinatutako herritarren partaidetzarako kontseiluei, dokumentua aztertzea eta haien ekarpenak biltzea:

- Udal Eskola Kontseilua (2023ko martxoak 1).
- Udalaren Haur Eskolen Sareko Eskola Kontseilua (2023ko martxoak 29).

SEIGARREN FASEA: Planaren zirriborroa jendaurrean aurkezpena.

- Planaren zirriborroa jendaurrean aurkeztea eta kontrastatzea (2023ko apirilak 19).

PLANAREN ONARTZEA: Tokiko Gobernu Batzordeak “Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea 2023-2030” Hezkuntza Plana onartzea.

- Tokiko Gobernu Batzordearen ohiko bilkura (2023ko ... (a)ren ... (e)an).

## **JARDUERA-ILDOAK ETA HELBURU OROKORRAK (2023-2030)**

“Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea 2023-2030” Hezkuntza Planak 6 jarduera-ildo planteatzen ditu 2023-2030 aldirako, eta zenbait helburu orokorren bidez garatuko dira horiek (ondoren adierazi ditugu). Helburu orokor horiek berariazko helburuetan zehaztu dira, eta horiek betetzeko bidea hiru programazio-alditan antolatu da: 2023-2025, 2025-2027 eta 2027-2029 aldiak. Programazio horietan horiek betetzeko jarduketak ezartzen dira. 2029-2030 ikasturtean Planaren azken ebaluazioa egingo da.

### **1. ILDOA: LEHEN HAURTZARORAKO HEZKUNTZA.**

HELBURU OROKORRAK:

1. Lehen haurtzarorako kalitatezko hezkuntza-zerbitzu irisgarri eta eskuragarriak sustatzea udalerrian.
2. Udalaren Haur Eskolen Sarean kalitatezko hezkuntza-eskaintza bat bermatzea.

### **2. ILDOA: HEZKUNTZA JARDUKETA EREMU FORMALEAN ETA EZ-FORMALEAN.**

HELBURU OROKORRAK:

1. Hezkuntzaren esparruan ezagueraren eta jardunbide egokien lanketa eta hedapena sustatzea.
2. Hezkuntza-jarduerak sustatzea eremu formalean eta ez-formalean.

### **3. ILDOA: EKITATEA ETA KALITATEZKO HEZKUNTZA INKLUSIBO BATERAKO ESKUBIDEA BERMATZEA.**

HELBURU OROKORRAK:

1. Hezkuntza Administrazioarekin lankidetzan aritzea, kalitatezko hezkuntza inklusiborako eskubidea bermatzeko.
2. Hezkuntzan desabantaila eta desberdintasuna sortzen duten faktoreei aurre egitea.
3. Vitoria-Gasteiz Hiri Hezkidetzaille gisa garatzen laguntzea.

### **4. ILDOA: HEZKUNTZA ETA ESPAZIOAREN ETA DENBORAREN ERABILERA.**

HELBURU OROKORRAK:

1. Udal titulartasuneko haur eskolen eta ikastetxeen instalazioak mantendu eta hobetzea.
2. Eskolako guneen erabilera eta jarduerak sustatzea eskolaz kanpoko ordutegian.
3. Hezkuntza-aukerak sustatzea, ikasgeletatik haratago, modu koordinatuan.
4. Hezkuntza-instalazioen inguruan naturguneak sustatzea eta eskolako patioak naturalizatzea.

5. Eskola-ingurune seguruen udal-eredua sustatzen laguntzea.
6. Aisialdian eta denbora librean hezkuntza-jarduerak sustatzea.

#### **5. ILDOA: HEZKUNTZA EREMUAN TREBATZEA, LAGUNTZEA ETA PARTE HARTZEA.**

HELBURU OROKORRAK:

1. Familiak hezkuntzan eta hezkuntza eremuan trebatzen, antolatzen eta parte hartzen laguntzea.
2. Gizarte- eta hezkuntza-eragileak hezkuntzan eta hezkuntza eremuan trebatzen laguntzea.
3. Gizarte- eta hezkuntza-eragileen funtzionamendua eta jarduera laguntzea hezkuntza-jardueren garapenean.
4. Egitura egonkorrak eta herritarren partaidetzarako prozesuak bultzatzea hezkuntzaren esparruan.

#### **6. ILDOA: UDAL BARNEKO, ERAKUNDEEN ARTEKO ETA GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEEKIKO LANKIDETZA.**

HELBURU OROKORRAK:

1. Vitoria-Gasteizko Udalean hezkuntza-jarduera koordinatua sustatzea.
2. Hezkuntza Administrazioarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, eskolatzearen eta hezkuntzaren garapenean.
3. Hirian hainbat irakaskuntza-aukera garatzen laguntzea.
4. Hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan aritzea haur eskolen eta ikastetxeen jardueraren eta funtzionamenduaren garapenean.
5. Hezkuntzaren esparruan, beste udalerrri batzuekin lankidetzan aritzea.

# **LEHEN PROGRAMAZIOALDIA**

**2023-2025**



## 1. ILDOA: LEHEN HAUTZARORAKO HEZKUNTZA

Vitoria-Gasteizko Udalak ikastetxe-sare propioa du, zuzenean kudeatzen duena, eta 5 Haur Eskolek osatzen dute: Haurtzaro, Lourdes Lejarreta, Sansomendi, Zabalzana eta Zaramaga. Sare horrek eta Haurreskolak Partzuergoak kudeatutako 19 Haur Eskolek eskaintza garrantzitsua eratzen dute udalerrian Haur Hezkuntzaren lehen ziklorako.

Hezkuntza Zerbitzua da, Haurreskolak Partzuergoaren lankidetzarekin, Haur Hezkuntzako lehen zikloa garatzera zuzenduta hirian barrena diren titulartasun publikoko 24 ikastetxeetako matrikulazioaren zerbitzu arduraduna. Horrek erakunde arteko koordinazio egoki bat eskatzen du plangintza koherente, egoki eta eraginkorra gauzatzeko aldera bi erakunde horiek herritarrei eskaintzen dizkien ikastetxetako plaza eta zerbitzuen eskaintzan, baita matrikulaziorako irizpide eta prozedura batzuen finkapenerako ere.

2023a mugari garrantzitsua izan da hezkuntzarako eskubide unibertsalean urratsak emateko. Izan ere, bai Vitoria-Gasteizko Udalak, bai Haurreskolak Partzuergoak doakotasuna ezarri dute haur eskoletan 2023-2024 ikasturterako. Matrikulazio-prozesuaren lanak berregokitzeko eta ikastetxeak berrantolatzeko erronka dakar horrek.

Udal Haur Eskolen sareko Hezkuntza Proiektuaren esparruan, Hezkuntza Zerbitzuak sakontzen jarraituko du 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrei zuzendutako hezkuntza-jardueran, batik bat, honako ekimen hauen bidez:

- Ikastetxeetan eskolaturiko haurrei zuzendutako hezkuntza-programak: folklorea, musika adierazpena, artea, heziketako instalazioak, etab.
- Matrikulatutako haurren gaineko jarraipen psikopedagogikoa, zehazki, garapenean arazoak aurkez ditzaketen gainean, euren hezkuntza beharrak jorrazteko eta euren familiei arreta emateko.
- Lehen haurtzaroko kalteberatasun sozioekonomikoko edota babesgabetasunaren arriskuko egoerak antzematea eta horiei arreta eskaintzea Udalaren Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailarekin eta Haurreskolak Partzuergoarekin lankidetzan.
- Euskararen erabilera soziala sustatzea laneko harremanetan, matrikulatutako haurrekin eta familiekin.
- Jantoki-zerbitzua heziketa-gune gisa garatzea, menu orekatu, askotariko eta lehen haurtzaroari egokitu dena eskainiz, ekologikoak, sasoikoak eta hurbilekoak diren produktuekin.

Udal Haur Eskoletako irakasleak eta sukaldeko langile ofizialak lanerako behar adina trebatu ahal izateko, langile horientzako etengabeko prestakuntzako jarduerak aurreikusi dira. Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera, bereziki garrantzitsua da irakasleei zuzendutako prestakuntza euskaraz egin ahal izatea.

Plan honen beste esku-hartze ildo batzuetan, Udal Haur Eskolek familiei edoskitzean eta heziketan laguntzera eta gaitzera zuzendutako jarduera batzuk ere jasotzen dira, tartean eskola-bizitzan eta parte-hartze organoetan parte hartzeko.

Era berean, aipatzekoak dira Haur Eskolek patioak naturalizatzeko programan izan duten parte-hartzea, kanpoko espazioetan klima aldaketa arintze aldera udal sarean itzalguneak sortzeko proiektu pilotuaren garapena eta euren instalazio eta espazioak hobetzera eta zaintzera zuzendutako lan guztiak.

Jarraian, 2023-2025 aldian burutuko diren helburu zehatzen eta programen berri ematen da, baita horiek 2030 Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) eta Vitoria-Gasteizko 2030 Hiri Agendarekin duten lotura eta horietako bakoitzarekin zerikusia duten udal-zerbitzu edota kanpoko erakundeak ere.

## HELBURU OROKORRAK 2023-2030

1.1. Lehen haurtzarorako kalitatezko hezkuntza-zerbitzu irisgarri eta eskuragarriak sustatzea udalerrian.

1.2. Udalaren Haur Eskolen Sarean kalitatezko hezkuntza-eskaintza bat bermatzea.

### 2023-2025 PROGRAMAZIOA

1.1 Helburu orokorra: LEHEN HAURTZARORAKO KALITATEZKO HEZKUNTZA-ZERBITZU IRISGARRI ETA ESKURAGARRIAK SUSTATZEA UDALERRIAN.

1.1.1 Helburu zehatza: Haur Hezkuntzako lehen zikloko titulartasun publikoko haur eskoletan matrikulazioa koordinatzea.

1.1.1.1 "Lehiatila bakarra", udalerrian dauden titulartasun publikoko haur eskola guztietan matrikulatzeko.	HIRI PROIEKTUA
	Erakunde arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; Haurreskolak Patzuergoa Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.1.1.2 Udalerrian dauden titulartasun publikoko haur eskola guztietako matrikulazioa.	HIRI PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua Inplikaturako erakundeak: Udal Zerbitzuak Garatzeko Zerbitzua; Herritarrei Laguntzeko eta Gardentasunaren Zerbitzua; Ogasun Saila; Haurreskolak Patzuergoa
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>

1.1.1.3 Titulartasun publikoko haur eskoletan matrikulatzeko lan-prozesuen berregokitzapena Haur Hezkuntzako lehen zikloko doako sarbiderako.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Erakunde arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; Haurreskolak Partzuergoa Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarorako); (10.3: aukeraberdintasuna eta emaitzen arteko desberdintasuna borrokatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input type="checkbox"/> Proiektu berria: <input checked="" type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.1.2 Helburu zehatza: Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolatzeko aukera edota urrakortasun bereziko egoeran diren haurrenganako arreta erraztea.	
1.1.2.1 Udal Haur Eskoletan plazak erreserbatzea Udal Gizarte Zerbitzuetan arreta ematen zaien familien haurrak zuzenean sartzeko.	UDAL PROIEKTUA
	Udal sail eta zerbitzu arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarorako);(10.3: aukeraberdintasuna eta emaitzen arteko desberdintasuna borrokatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.1.2.2. Zaurgarritasun sozioekonomikoan edota babesgabetasun arriskuan diren 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrak Udal Haur Eskolen Sarean hezkuntza eta arreta emateko lankidetzaren eta koordinaziorako protokoloa.	UDAL PROIEKTUA
	Udal sail eta zerbitzu arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarorako); (10.3: aukeraberdintasuna eta emaitzen arteko desberdintasuna borrokatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>

1.1.2.3 Urrakortasun sozioekonomikoan edota babesgabetasun arriskuan diren 0 urtetik 2 urtera bitarteko haurrak Haurreskolak Partzuergoaren haur eskoletan hezkuntza eta arreta emateko lankidetzeta eta koordinaziorako protokoloa.	HIRI PROIEKTUA
	Udal sail eta zerbitzu arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila; Haurreskolak Patzuergoa
	Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan); (10.3: aukera-berdintasuna eta emaitzen arteko desberdintasuna borrokatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>	
<b>1.2 Helburu orokorra: UDALAREN HAUR ESKOLEN SAREAN KALITATEKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BAT BERMATZEA.</b>	
<b>1.2.1: Udalaren Haur Eskolen antolaketa eta funtzionamendurako eredu ezin hobe bat eskaintzea.</b>	
1.2.1.1 Udal Haur Eskolen Sarearen Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudia eguneratzea.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak: udal talde politikoak, udal sindikatuak
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input type="checkbox"/> Proiektu berria: <input checked="" type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input type="checkbox"/>	
1.2.1.2 Udal Haur Eskolen sareari atxikitako langileen kudeaketa (zuzendaritzako langileak, hezitzaileak eta sukaldeko langileak).	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal sail eta zerbitzu arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; Giza Baliabideen Saila
	Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>	
1.2.1.3 Udal Haur Eskolen jantoki-zerbitzuan laguntzeko	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak: GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan)

langileak kontratatzea.	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.2.1.4 Menuak garraiatzeko zerbitzu bat kontratatzea sukaldarik ez duten Udal Haur Eskolentzat.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarorako)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>	
1.2.1.5 Udal Haur Eskolen sareari atxikitako langileen (zuzendaritzako langileak eta hezitzaileak) etengabeko prestakuntza.	UDAL PROIEKTUA
	Udal sail eta zerbitzu arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; Giza Baliabideen Saila
	Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarorako)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>	
1.2.1.6 Udal Haur Eskolen sareari atxikitako sukaldeko langileen etengabeko prestakuntza.	UDAL PROIEKTUA
	Udal sail eta zerbitzu arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; Giza Baliabideen Saila
	Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarorako); (2.4 nekazaritza-praktikak eta ekosistemak mantentzea); (12.6 erosketa publiko iraunkorra)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R2.4 (28: nekazaritzako elikagaien estrategia); R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>	

1.2.1.7 Udal Haur Eskoletan matrikulatutako seme-alaben familien eskabideak, eskariak eta beharrak kudeatzea.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>	
1.2.2 Helburu zehatza: Kalitateko hezkuntza-proiektu berritzaile bat eskaintzea Udal Haur Eskoletan.	
1.2.2.1 Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, 2023-2025, Udal Haur Eskolen sarearen Hezkuntza Proiektuaren barruan.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>	
1.2.2.2 Udal Haur Eskoletan matrikulatutako haurren behar psikopedagogikoak hautematea eta horiei arreta eskaini eta jarraipena egitea.	HIRI PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak: Arabako Foru Aldundiaren Arreta Goiztiarreko Zerbitzua; Osakidetza
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan); (10.3: aukeraberdintasuna eta emaitzen arteko desberdintasuna borrokatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>	
1.2.2.3 Udal Haur Eskoletan	UDAL PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Udal Saila

matrikulatutako haurren behar sozialak hautematea eta Udal Gizarte Zerbitzuetara bideratzea.	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan); (10.3: aukeraberdintasuna eta emaitzen arteko desberdintasuna borrokatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.2.2.4 Udal Haur Eskolen sareko Hezkidetzako Plan Gidaria (2022-2029).	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak: Berdintasun Zerbitzua
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan); (5.1: genero bereizkeriaren aurka eta 5.2: indarkeria matxista ezabatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza) (74: Udal Haur Eskolen Hezkidetzako Plan Gidaria)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
1.2.2.5 Ikastetxe bakoitzeko hezkidetzako programa, 2022-2024, Udal Haur Eskolen sarearen Hezkidetzako 2022-2029 Plan Gidariaren barruan.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak: Berdintasun Zerbitzua
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan); (5.1: genero bereizkeriaren aurka eta 5.2: indarkeria matxista ezabatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza) (74: Udal Haur Eskolen Hezkidetzako Plan Gidaria)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
1.2.2.6 Euskararen erabilera soziala sustatzeko eskola-programa, 2023-2025, jardueran eta laneko harremanetan bere zeharkakotasuna hobetzeko.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak: Euskara Zerbitzua
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroan);
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: Lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input type="checkbox"/> Proiektu berria: <input checked="" type="checkbox"/>



	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.2.2.7 “Artea eta Lehen Hezkuntza” programa.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: lehen haurtzarora eta kalitateko eskolaurreko hezkuntza)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.2.2.8 “Lehen haurtzararentzako arte instalazioak” hezkuntza-programa.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua Inplikaturako erakundeak: Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarora)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.2.2.9 Folkloreari buruzko hezkuntza-programa.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua Inplikaturako erakundeak: Udal Folklore Akademia - Txistulari Banda
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarora)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.2.2.10 Musika adierazpenerako hezkuntza-programa.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzarora)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea

	Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input type="checkbox"/> Proiektu berria: <input checked="" type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.2.2.11 Gogoetarako eta trebakuntzarako espazioak Udal Haur Eskolen sarean, espazioen naturalizazioaren printzipioei jarraituz hezkuntza-jarduera bat sustatzeko kanpoko espazioaren erabileran.	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.2: kalitateko hezkuntza lehen haurtzaroran)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (73: lehen haurtzarorako hezkuntza)
	Abian den proiektua: <input type="checkbox"/> Proiektu berria: <input checked="" type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
1.2.2.12 Matrikulatutako haurren adinari eta euren garapenari egokitutako menu orekatu eta askotarikoa eskaintzea, produktu ekologiko, sasoiko eta hurbilekoekin.	UDAL PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua
	Inplikaturako erakundeak: CEA-Ingurugiro Gaietarako Ikastegia
	GIH 2030: (2.4 nekazaritza-praktikak eta ekosistemak mantentzea);(12.6 erosketa publiko iraunkorra)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R2.4 (28: nekazaritzako elikagaien estrategia); R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>

## 2. ILDOA: HEZKUNTZA JARDUKETA EREMU FORMALEAN ETA EZ-FORMALEAN

Udal hezkuntza-politiken esku-hartze eraginkor batek eskatzen du ezagutza zehatza izatea esku-hartu nahi den errealitateari eta beharrei buruz, baita hezkuntza eremuan sortzen diren interesei eta espektatibei buruz ere. Horrek UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzaren formalizatzeko beharra sortu du, ezagutza sortzen eta Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzaile* gisa garatzeko elkarlaguntzan aritzeko. Lankidetzaren hori bi urtez behingo programetan gauzatzen da. Programa horietatik abiatuta, lankidetzak zehazten dira, hala nola teknologia eta berrikuntzaren “Zientzia Astea”, urtero Unibertsitateak antolatzen duena; unibertsitate-kredituak egiaztatzea; eta beste lankidetzaren ildo batzuk.

Horrez gain, Udal Eskola Kontseiluaren (UEK) Antolaketa Araudiak ezarritakoari jarraituz, jarraipena eman nahi zaie Vitoria-Gasteizko hezkuntzaren egoerari buruz egiten ari diren azterlanei. Lankidetzaren hori aipatu unibertsitateak antolatzen duen “Zientzia Astea” Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astearen garapenera ere zabaltzen da.

Esku-hartzearen ildo honek jasotzen du baita, batez ere Udalak, baina ez hark bakarrik, Haur Eskolako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleentzat “Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea” izenpean zuzentzen duen sail arteko udal hezkuntza-eskaintza. Eskaintza horrek 200 heziketa programa baino gehiago biltzen ditu, Udaleko sailek eta zerbitzuak kudeatzen dituzte Hezkuntza Zerbitzuaren koordinaziopean.

Programa horiek hezkuntza-jardueraren bultzatzen dute honako gai hauetan: ingurumena eta klimaren aldeko ekintza, hiriaren ezagutza, euskararen erabilaren sustapena, arte-hezkuntza eta ikus-entzunezkoak, gorputz-hezkuntza eta kirola, genero-berdintasunerako hezkuntza, osasun-hezkuntza, herritarren parte-hartzearen sustapena, gaitasun pertsonaletan oinarritutako hezkuntza, bizikidetzaren eta aniztasuna, garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko elkartzasuna, eta babesa eta segurtasuna. Programa horietako batzuek belaunaldien arteko ikuspegia barne hartzen dute, edadismoari txikitatik aurre egiteko eta adinekoentzako gizarte inklusiboagoa eraikitzeko.

Hezkuntza konplexutasun handieneko egoeran diren ikastetxeei laguntzeko asmoz, aurretiaz izena emateko epe bat jarri zen ikastetxe horientzat, eta, ondorioz, igo egin da horien parte-hartzea aipatu hezkuntza-jardueretan. Era berean, jardueraren ikastetxetik kanpo burutzen bada, ikasleen garrak ordaintzeko laguntzen deialdia dago ikastetxe horien eta gainerakoen eskura. Programa horrekin, gehitu egin nahi dira udalerriko ikasle guztiek hezkuntzarako izan ditzaketan aukerak, bereziki ikasle zaugarrienak.

“Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea” hezkuntza-jardueren programaren barruan, Hezkuntza Zerbitzuak, programaren zerbitzu sustatzaile eta koordinatzailea izateaz gain, hezkuntza-programa sorta bat kudeatzen ari da alor hauetan: musika adierazpena, hiriaren ondare historiko-artistikoaren ezagutza, arte eta ikus-entzunezko hezkuntza, komunikabideen eremuan. Horien edukien eta jardueraren garapenean genero-ikuspegia eta kulturartekotasuna txertatzen sakondu nahi dute guztiek.

Halatan, “Musika Adierazpena” hezkuntza-programak hainbat kontzertu pedagogiko egiten ditu musika ikastetxeetako ikasleei baina, halaber, helduei ere hurbiltzeko asmoz. Programa hori hiru kontzertu-bloketan zehazten da: “Musikarekin gozaten”, “Notak eskolan” eta “Hau entzuna dut” .

Hiriaren ondare historiko eta artistikoa ezagutzeko hezkuntza-programa, bere aldetik, hirian zehar prestatutako hainbat ibilbideren bidez garatzen da eta ikastetxeetako ikasleei zuzentzen da, baina baita helduei ere. Ibilbideek Erdi Aroko Vitoria-Gasteiz, Vitoria-Gasteiz neoklasikoa, XIX. mendeko zabalgunea, San Pedro eliza, Udaletxea, artxibategia eta emakumeek hiriaren garapenari egindako ekarpena jasotzen dituzte. Ibilbide horiez gain, bisitak eta tailerrak egiten dira Santa Maria Katedralean. 2023-2025 programazioak ibilbide berri bat jarriko du abian, XX. mendearen erdialdean, diktadura frankistaren testuinguruan, hiriaren eraldaketetan oinarrituta, 50eko eta 60ko hamarkadetan gertatu ziren migrazio-prozesuak hobeto ezagutzeko, baita egungo errealitatearekiko antzekoak izan daitezkeen prozesu honetako alderdiak ere.

Arte eta ikus-entzunezkoen hezkuntza, komunikabideen arloan “Gasteiztxo” programak irrati, prentsa, telebista eta publizitate tailerretara hurbildu nahi ditu ikasleak, era praktikoan ezagut dezaten hiriaren egungo egoera eta horren behar eta eskaerak, komunikabideek erabiltzen dituzten euskarriak maneiatzen ere trebatuz, bitartean.

Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-eskaintza hori hirian garatzen diren heziketa izaerako programa eta ekitaldiekin osatzen da eta urtero azaroaren 30ean ospatzen den Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunarekin, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartearen (HHNE) ekimen eta sustapenaren bidez. Ospakizun horrekin, hainbat jardueren bitartez, udalerriko biztanleak eta bertako eragileak sensibilizatu nahi dira Vitoria-Gasteiz *Hiri Hezitzailea* izaten sendotzeko behar den inplikazioari buruz.

## HELBURU OROKORRAK 2023-2030

- 2.1. Hezkuntzaren esparruan ezagueraren eta jardunbide egokien lanketa eta hedapena sustatzea.
- 2.2. Hezkuntza-jarduerak sustatzea eremu formalean eta ez-formalean.

### 2023-2025 PROGRAMAZIOA

2.1 Helburu orokorra: HEZKUNTZAREN ESPARRUAN EZAGUERAREN ETA JARDUNBIDE EGOKIEN LANKETA ETA HEDAPENA SUSTATZEA.	
2.1.1 Helburu zehatza: UPV/EHU-REKIN LANKIDETZA HEZKUNTZA ARLOAN EZAGUTZA SORTU ETA ZABALTZEKO.	
2.1.1.1 Lankidetzako hitzarmen-esparrua Vitoria-Gasteizko Udala eta UPV/EHUren artean, hezkuntza arloan elkarren artean jarduerak garatzeko.	HIRI PROIEKTUA
	Erakunde arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; UPV/EHU Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.3: lanbide eta goi-mailako hezkuntzetarako berdintasunezko sarbidea, unibertsitatekora barne)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (72: eskola-segregazioa borrokatzeko programak) (75: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea sail arteko programa)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
2.1.1.2 2023-2025 biurteko programazioa, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta UPV/EHUren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena garatzeko	HIRI PROIEKTUA
	Erakunde arduradunak: Hezkuntza Zerbitzua; UPV/EHU Inplikaturako erakundeak:
	GIH 2030: (4.3: lanbide eta goi-mailako hezkuntzetarako berdintasunezko sarbidea, unibertsitatekora barne)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
2.1.2 Helburu zehatza: UDALERRIAREN HEZKUNTZA-ERREALITATEA ETA -BEHARRAK EZAGUTZEA.	
2.1.2.1 Vitoria-Gasteizko hezkuntza-egoerari buruzko azterlanak eta hezkuntza-arloko premien	HEZKUNTZA ZERBITZUAREN PROIEKTUA
	Udal zerbitzu arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua Inplikaturako erakundeak: UPV/EHU; beste unibertsitate batzuk
	GIH 2030: (4.7: ezagutza teoriko-praktikoak, berdintasuna, garapen iraunkorra);

diagnostikoak.	(10.3: aukera-berdintasuna eta emaitzen arteko desberdintasuna borrokatzea)
	Vitoria-Gasteiz 2030 Hiri Agenda: R4.5 (70: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea Hezkuntza Plana) (72: eskola-segregazioa borrokatzeko programak) (75: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea sail arteko programa)
	Abian den proiektua: <input checked="" type="checkbox"/> Proiektu berria: <input type="checkbox"/>
	2023-2024 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/> 2024-2025 ikasturtea: <input checked="" type="checkbox"/>
<b>2.2 Helburu orokorra: HEZKUNTZA-JARDUERAK SUSTATZEA EREMU FORMALEAN ETA EZ-FORMALEAN.</b>	
<b>2.2.1 Helburu zehatza: UDAL HEZKUNTZA PROGRAMAZIO EGONKORRA ETA KOORDINATUA ESKAINTZEA.</b>	
2.2.1.1 Sail arteko udal hezkuntza-jarduerak, "Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea".	HIRI PROIEKTUA
	Udal zerbitzu bultzatzaile eta koordinatzailea: Hezkuntza Zerbitzua
